

EUSKERA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2019



Bilbao

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao

Taku Sugimoto, Félicie Bazelaire eta Leo Dupleix + Andrea Berbois eta Garazi Navas



Taku Sugimoto, Félicie Bazelaire eta Leo Dupleix musikariek beren azken lana aurkeztuko dute musika esperimentalako Hotsetan programaren barruan. Programa horren xedea hurbileko nahiz nazioarteko artisten soinu-lanak ezagutzera ematea izanik, bertako zenbait artista ere izango ditugu gure artean, hala nola Andrea Berbois biolinista gipuzkoarra eta [Garazi Navas](#) akordeoilaria, Morton Feldman, Giacinto Scelsi eta John Cageren piezak interpretatzen.

Taku Sugimoto gitarrista, inprobisatzaile eta musikagilea, Japoniako musika esperimentalaren joera delikatuaren ordezkaririk bikaina da, eta Félicie Bazelaire eta Leo Dupleix ohiko kolaboratzaileekin aurkeztuko ditu bere azken lanak. Bazelaire Parisen finkatutako biolontxelo-jotzaile eta kontrabaxu-jotzaileak musika klasikoa eta garaikidea ikertzen dihardu bere proiektuetan, inprobisazioaren, konposizioaren eta performancearen bidez. Dupleix paristarra, berriz, inprobisatzaile eta musikagile gisa da ezaguna, bere lanetan ordenagailuaz, ukipen-mikrofonoaz, landako grabazioez, motorrez eta askotariko objektuez egiten duen erabileragatik, batez ere.

Andrea Berbois artistak, Garazi Navas lagun duela, biolin bakarrerako Giacinto Scelsiren *L'âme ailée* obra (1995), biolin bakarrerako Morton Feldmanen *For Aaron Copland* obra (1981) eta John Cageren *Six melodies for violin and Keyboard* (1960) obra interpretatuko ditu. Berbois biolinistak Musikenen lortu zuen gradua, zenbait talde sinfoniko eta ganbera-orkestratuko kidea eta lankidea da, eta erreperitorio klasikoa eta XX-XXI. mendeetako abangoardietako musika uztartzen ditu. Era berean, musika elektroakustikoko proiektuetan parte hartzen ari da, baita diziplina arteko zenbait proiektu eszenikotan ere. Garazi Navas, bestalde, Musikeneko ikaslea da, eta ezaguna da EIOko (Euskadiko Ikasle Orkestra, 2004) akordeoilari gisa egindako bideagatik, askotariko kultura egitasmoetan – Bilbao Art District (2015) egitasmoan, esaterako– izandako partaidetzagatik, Carlos Garaicoa artistaren *Partitura* (2017) piezagatik eta BOSeko kide lankide gisa egindako lanagatik (2018).

«Biolina noten gehiegizko ugaritasunetik ateratzea. Instrumentuari hain maiz atera izan ez zaizkion erregistroak bistaratzea, denbora lasaitzea, soinua zeharkatzea, arbuaitutako konbinazioak hedatzea». Andrea Berbois



Otsailak 15, ostirala

19:00

Lantegia 2

8€ / 6€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Infopuntua eta
www.azkunazentroa.eus



 www.sites.google.com/site/feliciebazelaire

 www.japanimprov.com/tsugimoto

 www.leodupleix.com